IURREAMENDI EGOITZA
TOLOSA

**Tolosako Iurreamendi egoitzarako sukalde arduradun bat aukeratzeko oinarriak.**

**1. Deialdiaren helburua.**
Honako deialdi honen xedea Tolosako Iurreamendi egoitzarako denboraldi baterako sukalde arduradun bat kontratatzea da. Lanpostua betetzen duenari aldi baterako kontratua egingo zaio.

Lanpostuaren lan baldintzak Iurreamendi egoitza erakunde autonomoaren baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren araberakoak izango dira eta ordainsari orokorrak ordainsarien 11. mailari dagozkionak.

Lanpostua C2 sailkapen taldearen baitakoa da eta 2. hizkuntza eskakizuna du - 2016ko abenduaren 27 da derrigortasun data -.

Lanaldia Iurreamendi egoitzako zuzendaritzak finkatzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta berariazko beharrak kontuan izanik.

**2. Eginkizunak**
Hauexek dira lanpostuaren eginkizunak:

- Sukaldeko langileen antolaketa, banaketa, koordinazioa eta gainbegiratzea.
- Otorduen programazioa, elaborazioa, manipulazioa eta ontzea, finkatutako menuak eta dietak jarraiki.
- Elikagaien biltegiak egunean mantentzea eta higienea eta txukuntasuna kontrolatzea.
- Biltegiko izakinen kontrola, hornitzaileei eskaerak eginez eta izakinen maila optimoa mantenduz.
- Kalitate-prezio erlazio ona lortzeko eskaintzak aztertzea, zerbitzu orokorren arduradunaren gainbegiradapean.
- Erosgaiak jaso eta eskaerak egiaztatzea, ezarritako irizpideen arabera.
- Produktuak jasotzean eta garraiatzean, hornitzaileek zehaztutako arauak betetzen dituztela ziurtatzea.
- Sukalde zerbitzua kudeatzea APPCC sisteman zehaztutako irizpideen arabera (Arriskuen eta Kontrol Puntu Kritikoen Analisia)

**Bases para la selección de un/a Encargado/a de cocina para la Residencia Yurreamendi de Tolosa.**

**1. Objeto de la convocatoria.**
Es objeto de la presente convocatoria cubrir temporalmente un puesto de Encargado/a de cocina de la Residencia Yurreamendi de Tolosa. El puesto de trabajo será cubierto mediante un contrato de trabajo temporal.

Las condiciones laborales del puesto de trabajo se regirán por lo dispuesto en el Convenio que regula las condiciones del personal del Organismo Autónomo Residencia Yurreamendi, siendo sus retribuciones generales las correspondientes al nivel 11 de retribuciones.

El puesto de trabajo se encuadra dentro del grupo de clasificación ”C2”, y tiene establecido el perfil lingüístico 2, con fecha de preceptividad 27/12/2016 .

La jornada de trabajo será la que establezca la Dirección de la Residencia Yurreamendi, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades del puesto.

**2. Funciones.**
Las funciones del puesto son las siguientes:

- Organización, distribución, coordinación y supervisión de todo el personal adscrito a la cocina.
- Programación, elaboración, manipulación y condimentación de las comidas con sujeción al menú y distintos regímenes alimenticios establecidos.
- Mantener al día los almacenes de alimentos, así como controlar la higiene y el orden.
- Controlar las existencias realizando los pedidos a los proveedores habituales y manteniendo el nivel óptimo de stocks.
- Estudio de ofertas para obtener una buena relación calidad-precio, bajo la supervisión de la Encargada de Servicios Generales.
- Recepción de mercancías y comprobación de pedidos según criterios establecidos.
- Comprobar que los proveedores cumplan con todas las normas pautadas en la recepción de productos y en el transporte.
- Gestión del servicio de cocina en base a los criterios establecidos en el sistema APPCC:

- Sukaldeko eta lan-tresnen mantentzea, ordena eta garbiketa zaintzea.
- Menuak modu multidisziplinarrean ezartzen laguntzea.
- Deskribatutakoez gain, noizean behin eta espezifikoki zerbitzu orokorren arduradunak zehaztutako eginkizunak betetzea.

- Velar por el mantenimiento, orden y limpieza de todas las zonas de la cocina y elementos de trabajo.
- Colaborar en el establecimiento de menús de forma multidisciplinar.
- Desarrollar las funciones que, además de las descritas, ocasionalmente y de forma específica le designe la Encargada de Servicios Generales.

**3. Baldintzak.**
Probetan parte hartzeko eta onartuak izateko, hurrengo baldintzak bete beharko dituzte lanpostura aurkezten direnek:

a) Europar Batasuneko herrialde bateko herritartasuna izatea edo Europar Batasunak izenpetutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen ondorioz langileen zirkulazio librea onartuta duen herrialde bateko herritartasuna izatea –Europako Batasuna sortu zeneko hitzarmenean zehaztutako terminoetan izan behar du indarrean herrialde horrek langileen zirkulazio librea–.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira –kasu honetan, ere, noski, ezkontideak ezin dira zuzenbidearen arabera banatuta izan–.

Espainian bizi diren baina aurreko paragrafoetako baldintzetan sartzen ez diren atzerritarrek ere har dezakete parte lanpostua betetzeko probetan. Hori bai, aukeratuak izanez gero, lanpostua betetzeko administrazio baimena dutela egiaztatu beharko dute kontratua legezko egin aurretik.

b) Lanpostuari dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

Epaimahaiak jarritako probak gainditu dituzten hautagaiek bakarrik egiaztatu beharko dute baldintza hau. Horretarako, lanpostua bete aurretik, hainbat proba eta mediku azterketa egingo zaizkie. Azterketa medikua horretarako espresuki izendatutako zerbitzu medikuak egingo du.

**3. Requisitos.**
Para ser admitidos y, en su caso, para poder tomar parte en las pruebas, los/as aspirantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Tener la nacionalidad de cualquier Estado miembro de la Comunidad Europea o de cualquier otro Estado que, en virtud de tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, sea de aplicación la libre circulación de trabajadores en los términos en que ésta se halle definida en el Tratado constitutivo de la Comunidad Europea.

También podrán participar el/la cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado/a de derecho, así como sus descendientes y los/las de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos/as descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. Si resultaran seleccionadas, deberán acreditar la posesión de la autorización administrativa para realizar la actividad objeto del contrato, con carácter previo a la formalización de éste.

b) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas

Este extremo habrá de acreditarse en su momento, tras unas pruebas y un reconocimiento a que serán sometidos solo los aspirantes aprobados por el Tribunal, previo a ocupar el puesto de trabajo. Dicho reconocimiento se realizará por el servicio médico establecido a tal efecto.

c) Hamasei urte beteta izatea eta nahitaez erretiratzeko adinetik gorakoa ez izatea.

d) Sukalde Zuzendaritzako Goi Mailako Heziketa Zikloa, sukaldaritzako eta gastronomiako teknikari Goi Mailako Heziketa Zikloa edo sukaldaritzako edo jatetxe zerbitzuekin lotutako Goi Mailako Lanbide Heziketako titulu baliokideren bat izatea.

e) Edozein herri administrazioren zerbitzutik zigor-espediente bidez baztertuta ez izan izana edo zeregin publikoak betetzeko gaitasuna kenduta ez izatea.

f) Kontratua legezko egingo den egunean abenduaren 26ko 53/1984 Legeak bateraezinezkotzat jotako jarduerak ez betetzea.

g) 2. hizkuntza eskakizuna izatea egiaztatzea. Hizkuntza eskakizuna dagokion agiriak aurkeztuta edo oposizio fasean horretarako egingo diren azterketak gaindituta egiazta daiteke. Azterketa gainditzen ez dutenak edo 2. hizkuntza eskakizuna izatea egiaztatzen ez dutenak lanpostua eskuratzeko oposiziotik kanpo geratuko dira. Oposizio fasean egingo den azterketak ez du 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko balio ofiziala izango; lanpostu jakin honetarako aukeraketa prozesuan parte hartzeko bakarrik balioko du.

Honako oinarri hauetan zerrendatutako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira, baita kontratua legezko egin arte mantendu ere –salbuespen bakarra g) atala da–.

c) Tener los 16 años cumplidos y no exceder de la edad máxima de la jubilación forzosa.

d) Estar en posesión del título de Formación Profesional de Grado Superior de dirección cocina, técnico en cocina y gastronomía u otros títulos equivalentes de Formación Profesional de Grado Superior de cocina y restauración.

e) No haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquier Administración Pública, ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas.

f) No desempeñar actividades declaradas incompatibles por la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, el día de la formalización del contrato.

g) Acreditar el cumplimiento del perfil lingüístico «2». Este extremo se podrá acreditar documentalmente o bien mediante la superación de las pruebas que al efecto se realicen durante la fase de la oposición. Quedarán excluidos/as quienes no acrediten estar en posesión del perfil lingüístico «2» o no superen la correspondiente prueba de euskara. Este examen no tendrá validez oficial a efectos de acreditación del perfil lingüístico 2, sólo será válido para tomar parte en el proceso de selección de este puesto de trabajo.

Los requisitos relacionados en esta base se deberán cumplir en el momento de expiración del plazo de presentación de instancias, y mantenerse hasta la realización del contrato excepto el apartado g).

**4. Eskabideak.**
Honako oinarri hauen eranskin gisa jasotako eredu ofizial eta arautua izan beharko dute eskabideek.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskatuz beteko diren eskabideak Iurreamendi egoitzako zuzendaritza batzordeko lehendakariari zuzenduko zaizkio eta, onartuak izateko, hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

a) Lanpostua betetzeko hautagaiek deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute –baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dituzte eta salbuespen

**4. Instancias.**
Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que figura como anexo a estas Bases.

Las instancias solicitando ser admitido/a en el concurso-oposición se dirigirán a la Presidenta de la Junta Rectora de la Residencia Yurreamendi, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Los/as aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base tercera de la convocatoria, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias, a

bakarra g) atalean adierazitakoa izango da–. Era berean, lehiaketa aldian baloratuko diren merezimenduen datuak adierazi behar dituzte, betiere behar bezala egiaztaturik. Eskabidean zehaztu eta egiaztatzen ez diren merituak ez dira balorazio xede izango.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsi behar dituzte hautagaiek:

- NANaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Exijitutako hizkuntza eskakizuna izatea egiaztatzen duen jatorrizko dokumentua edo fotokopia.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak izatea egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak edo fotokopiak, lehiaketa aldian baloratuak izan daitezen.

Laneko esperientzia egiaztatzeko, zerbitzu horiek eskaini diren enpresaren edota administrazioaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira; bertan, kontratuaren iraupena, dedikazioaren erregimena eta betetako lanpostua zehaztuko dira. Horiek guztiak lehiaketa-oposizio honetan beteko den lanpostuaren eginkizunen arabera baloratuko dira. Enpresa pribatuetan izandako esperientzia egiaztatzeko, gizarte segurantzako kotizazioen ziurtagiriak eta lan kontratuaren fotokopia ere aurkeztu beharko dira.

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztu behar dira Iruña etorbidea 6, 20400 Tolosa helbidean kokatutako Iurreamendi egoitzako bulegoetan. Eskabideak aurkezteko epea hamabost lanegunekoa izango da deialdiaren iragarpena Gipuzkoako bi egunkaritan gutxienez, egoitzako iragarki-taulan eta Tolosako Udaleko web orrian (www.tolosa.eus) argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**5. Lanpostua betetzeko hautagaien onarpena.**
Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, zuzendaritza batzordeko lehendakariak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartuko du; jarraian, egoitzako iragarki-taulan jarriko da zerrenda.

Behin-behineko zerrendarekin batera, kalifikazio epaimahaiko kideen izendapena argitaratuko da, baita oposizioko lehen azterketa non, zein datatan eta zein ordutan egingo den ere. Hurrengo

excepción de la señalada en el apartado g). Así mismo, deberán hacer constar los datos relativos a los méritos a valorar en la fase de concurso, debidamente acreditados. No serán objeto de valoración aquellos méritos que no se detallen o se acrediten con la instancia.

b) Además, adjuntará a la instancia la siguiente documentación:

- Fotocopia del DNI.
- Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Original o fotocopia del documento acreditativo de alcanzar el perfil lingüístico exigido y de estar en posesión del mismo.
- Documentos originales o fotocopias que acrediten los méritos alegados en la instancia, al objeto de su valoración en la Fase de Concurso.

La experiencia deberá ser acreditada mediante certificaciones de Empresa o de la Administración en la que se hayan prestado servicios, especificándose la duración del contrato, el régimen de dedicación, y el puesto desempeñado, los cuales serán valorados conforme a las funciones asignadas a la plaza que se convoca. La experiencia en el ámbito privado deberá acreditarse además, mediante certificación de cotización a la Seguridad Social además, de la copia del contrato de trabajo.

Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en las oficinas de la Residencia Yurreamendi, sita en Iruña Etorbidea 6, 20400 Tolosa, dentro del plazo de quince días hábiles una vez que aparezca publicado el anuncio de la convocatoria en al menos dos periódicos del Territorio Histórico, en el tablón de anuncios de la Residencia, y en la página web del Ayuntamiento de Tolosa (www.tolosa.eus).

**5. Admisión de los/as aspirantes.**
Finalizado el plazo de presentación de instancias, la Presidenta de la Junta aprobará y publicará la lista provisional de aspirantes admitidos/as y excluidos/as en el tablón de anuncios de la Residencia.

Junto con la lista provisional se publicará la designación de los/as miembros del Tribunal Calificador, así como la fecha, hora y lugar en que se celebrará el primer ejercicio de la oposición. Los

azterketak epaimahaiak iragarriko ditu, ezagut daitezen komenigarrien ikusten duen eran.

posteriores ejercicios serán comunicados por el Tribunal en la forma que se juzgue más conveniente para facilitar su conocimiento.

Aipatutako zerrendatik kanpo geratutako hautagaiek zerrenda iragarki-taulan jartzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasiko den hiru lanegunetako epea izango dute ez onartze hori eragin duten akatsak edo ez egiteak zuzentzeko.

Los/as aspirantes que figuren excluidos/as en la referida lista, dispondrán de un plazo de 3 días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación en el tablón de anuncios, para la subsanación de los defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki. Erreklamazioak aurkezten badira, berriz, behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen berri baten bidez baietsi edo ezetsiko dira. Behin betiko zerrenda egoitzako iragarki-taulan argitaratuko da.

La lista provisional, se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiera, serán estimadas o desestimadas, en su caso, en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva que se hará pública en el tablón de anuncios de la Residencia.

**6. Epaimahai kalifikatzailea.**
Kalifikazio epaimahaia ondokoek osatuko dute:

Lehendakaria:
- Egoitzako zuzendaria edo berak eskuordetutako norbait.

Mahaikideak:
- Zerbitzu orokorren arduraduna edo berak eskuordetutako norbait.
- Egoitzako koordinatzailea edo berak eskuordetutako norbait.
- Tolosako Udaleko Giza Baliabideen teknikaria, edota berak eskuordetutako pertsona.

Idazkaria:
- Tolosako Udaleko Giza Baliabideen teknikaria, edota berak eskuordetutako pertsona.

Epaimahaiko kideak zuzendaritza batzordeko lehendakariak izendatuko ditu, eta horien izendapena, egin beharreko lehen azterketako deialdiarekin batera, iragarki-taulan argitaratuko da.

Epaimahaiko kideek bertako kide izateari uko egin beharko diote eta horren berri eman beharko diote zuzendaritza batzordeko lehendakariari ohiko administrazio prozeduraren araudian aurreikusitako zirkunstantziaren bat izanez gero; horrela izanez gero, hautagaiek beraien ezespena eskatzeko eskubidea izango dute.

**6. Tribunal calificador.**
El Tribunal Calificador estará compuesto de la siguiente forma:

Presidente:
- La Directora de la Residencia o persona en quien delegue.

Vocales:
- La Encargada de Servicios Generales de la Residencia o persona en quien delegue
- La Coordinadora de la Residencia o persona en quien delegue
- El Técnico de Recursos Humanos del Ayuntamiento o persona en quien delegue.

Secretario:
- El Técnico de Recursos Humanos del Ayuntamiento o persona en quien delegue.

Los/as miembros del Tribunal serán nombrados por la Presidenta de la Junta Rectora de la Residencia y su designación se hará pública en el tablón de anuncios, junto con la convocatoria del primer ejercicio a realizar.

Los/as miembros del tribunal deberán abstenerse de formar parte del mismo, notificándolo a la Presidenta de la Junta Rectora, y los/as aspirantes podrán promover su recusación, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en la normativa reguladora del procedimiento administrativo común.

**7.- Euskararen ezagutza.**
3. oinarriko g) atalean exijitutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketaren eguna onartutako eta baztertutako hautagaien zerrendekin batera argitaratuko da egoitzako iragarki-taulan –hizkuntza eskakizuna agiri bidez egiaztatu dutenek ez dute azterketa egin beharko–.

Azterketa gainditzen ez duten hautagaiak aukeraketa prozesutik kanpo geratuko dira.

Azterketa honek ez du baliotasun ofizialik izango 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, hau da, deialdi honetako lanpostuaren hautaketa prozesuan parte hartzeko besterik ez du balioko.

**8. Aukeraketa prozedura.**
Hautagaien aukeraketa prozedurak ondoko faseak izango ditu:

a) Oposizioa.
b) Lehiaketa.

- Oposizio fasea:
  Jarraian azaltzen diren ariketak izango ditu:

  1. Lehen ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea. Lanpostuaren funtzioekin zerikusia duen proba teorikoa izango da; bertan, galdetegi bat erantzun beharko da idatziz –galdera bakoitzak hainbat erantzun izango ditu aukeran–. Ariketan 10 puntu lortu ahal izango dira eta proba gainditzeko beharrezkoa izango da gutxienez 5 lortzea.

  2. Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea. Lanpostuaren zeregin orokorrekin zerikusia duten proba praktikoek osatuko dute. Ariketan 20 puntu lortu ahal izango dira eta proba gainditzeko beharrezkoa izango da gutxienez 10 lortzea.

- Lehiaketa fasea:
  Balioztatuko diren merituak honako hauek izango dira:

  a) Zentro kolektibo ofizialetan antzeko lanetan izandako eskarmentu profesionala: 0,20 puntu hilabeteko, eta 4 puntu gehienez ere.

  b) Zentro kolektibo pribatuetan antzeko lanetan izandako eskarmentu profesionala: 0,10

**7.- Conocimiento de euskera.**
La fecha de realización de las pruebas para la acreditación del idioma exigido en el apartado g) de la Base tercera, para aquellos/as aspirantes que no lo hayan probado documentalmente, se publicará juntamente con las listas de admitidos/as y excluidos/as en el tablón de anuncios de la Residencia.

Los/as aspirantes que no superen esta prueba serán excluidos/as del proceso selectivo.

Este examen no tendrá validez oficial a efectos de acreditación del perfil lingüístico 2, sólo será válido para tomar parte en el proceso de selección de este puesto de trabajo.

**8. Procedimiento de selección.**
El procedimiento de selección de los/as aspirantes constará de las siguientes fases:

a) Oposición.
b) Concurso.

- Fase de oposición:
  Constará de los ejercicios que a continuación se indican:

  1. Primer ejercicio: De carácter obligatorio y eliminatorio. Consistirá en una prueba teórica relacionada con las funciones de su puesto de trabajo, contestando por escrito un cuestionario de preguntas con respuestas alternativas. Se valorará hasta 10 puntos, debiendo obtener 5 puntos para poder superar la prueba.

  2. Segundo ejercicio: De carácter obligatorio y eliminatorio. Consistirá en la realización de pruebas prácticas relacionadas con los cometidos generales del puesto. Se valorará hasta 20 puntos, debiendo obtener 10 puntos para poder superar la prueba.

- Fase de concurso:
  Los méritos que se valorarán serán los siguientes:

  a) Experiencia profesional en trabajo similar en centros colectivos de carácter oficial: 0,20 puntos por mes, hasta un máximo de 4 puntos.

  b) Experiencia profesional en trabajo similar en centros colectivos de carácter privado: 0,10

puntu hilabeteko, eta 2 puntu gehienez ere.

c) Lanpostuaren profilarekin zerikusia duten gaien inguruko trebakutza-ikastaro osagarriak. Gehienez 2 puntu lortu ahal izango dira –jasotako 20 prestakuntza orduko 0,25 puntu eskuratuko dira–.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitza egiteko. Ezarritako egun, ordu eta lekuan epaimahaiak ezarritako ariketak egitera aurkezten ez direnak, aukeraketa prozesutik kanpo geratuko dira, baita aurkeztu ez izana justifikatzen duten arrazoiak badituzte ere.

Deialdiko oinarrietan aurreikusi gabeko gaietan, beharrezko irizten dituen neurri guztiak hartu ahal izango ditu kalifikazio epaimahaiak aukeraketa prozesuak aurrera jarrai dezan. Era berean, oinarrien interpretazioari eta aplikazioari lotuta sor daitezkeen auzi guztiak ebatzi ahal izango ditu. Edozein kasutan, indarrean dagoen legedian ezarritakoa aplikatu beharko du.

Hala balegokio, kalifikazio epaimahaiak adierazitako proben ordena aldatu ahal izango du, baita egun berean proba bat baino gehiago egitea erabaki ere.

Bidezko irizten duen probetan, epaimahaiak gaian adituak diren aholkularien laguntza eska dezake.

**9. Epaimahaiaren proposamena.**
Hautagai bakoitzaren azken nota bi faseetan eskuratu dituen puntuen batura izango da; hain zuzen ere, batura horrek erabakiko du hautagaien ordena.

Behin ariketak balioztatuta, epaimahaiak aukeraketa prozesua gainditu duten hautagaien izenak argitaratuko ditu iragarki-taulan; bertan, lortu dituzten puntuen arabera ordenatuta izango dira hautagaiak, puntu gehin lortu dituenetik gutxien lortu dituenera arte.

Epaimahaiaren ustez hautagaien artean lanpostua betetzeko baldintza minimoak betetzen dituen inor ez badago, lanpostua bete gabe utz dezake.

Epaimahaiak ezingo du, inolaz ere, deitutako lanpostu kopurua baino hautagai gehiago proposatu.

puntos por mes, hasta un máximo de 2 puntos.

c) Formación complementaria sobre materias relacionadas con el perfil del puesto. Se valorará un máximo de 2 puntos, a razón de 0,25 puntos por cada 20 horas de formación.

Los/as aspirantes serán convocados para cada ejercicio en llamamiento único. Los/as aspirantes que no acudan al lugar establecido en la hora y día establecidos para la realización de los ejercicios por el Tribunal, incluso por motivos justificados, quedarán excluidos/as del proceso de selección.

El Tribunal Calificador podrá adoptar las medidas que estime necesarias para el desarrollo del sistema selectivo en todo lo no previsto en las presentes bases, y resolver cuantas cuestiones se susciten relativas a su aplicación e interpretación. En todo caso, será de aplicación lo establecido en la legislación en vigor.

El Tribunal Calificador podrá variar, en su caso, el orden de las pruebas especificadas así como decidir realizar más de una prueba el mismo día.

En las pruebas en que lo considere conveniente el Tribunal, podrá recabar la colaboración de asesores expertos en la materia de que se trate.

**9. Propuesta del tribunal.**
La calificación final de cada aspirante se obtendrá mediante la suma de los puntos que ha obtenido en las dos fases, y esa suma decidirá el orden de los/as aspirantes.

Una vez valorados los ejercicios, el Tribunal expondrá en el tablón de anuncios los nombres de los/as aspirantes que han superado el proceso selectivo, en el orden correspondiente a los puntos que han obtenido, de mayor a menor puntuación.

Si en opinión del Tribunal entre los/as aspirantes presentados a la convocatoria no hay ninguno que cumpla los requisitos mínimos para cubrir puesto de trabajo, puede declarar la convocatoria desierta.

El Tribunal no podrá, de ninguna manera, proponer más aspirantes que los puestos de trabajo convocados.

Epaimahaiak dagokion akta igorriko dio Iurreamendi egoitzako organo eskudundunari kontratazioa egin dezan.

El tribunal remitirá el acta correspondiente al órgano competente de la Residencia Yurreamendi para que realice la contratación.

Behin izendapena argitaratu eta gero, proposatutako hautagaiak 5 laneguneko epea izango du lehiaketan parte hartzeko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkezteko.

El/la aspirante propuesto/a dispondrá de un plazo de 5 días naturales desde la publicación del nombramiento, para presentar los documentos originales que acreditan que cumple los requisitos solicitados en las bases para tomar parte en el concurso.

Ezinbesteko arrazoiak izan ezean, hautagaiak ezarritako epean exijitutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, kontratua ez da gauzatuko eta aukeraketa prozesuko bere jarduera guztiak indargabetu egingo dira. Horrela gertatuz gero, organo eskudunak azken sailkapenean hurrengo postuan dagoen pertsonaren edo pertsonen aldeko proposamena egingo du.

Si el/la aspirante no acredita en el plazo establecido, a no ser que sea por razones de fuerza de mayor, el cumplimiento de los requisitos exigidos, no podrá ser contratado/a y todas sus actuaciones quedarán sin valor. En este caso, el órgano competente realizará una propuesta a favor de la persona o personas que se encuentren en los siguientes puestos en el orden de la última clasificación.

Ariketa kanporatzaileak gainditu arren plaza kopurua mugatua delako lanpostua lortu ez duten hautagaien zerrenda, ezaugarri bereko lanpostuetan sor daitezkeen langile behar ez iraunkorrei erantzuteko erabili ahal izango da.

La lista de aspirantes que habiendo superado el proceso de selección exceda del número de plazas convocadas, se podrá utilizar para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos.

**10. Kontratazioa.**

Hautagaiak aurreko atalean zehaztutako agiriak aurkezten dituenean, eskumena duen organoak epaimahaiak proposatutako hautagaia kontratatuko du. Kontratua sinatu aurretik, enpresak zehaztutako zerbitzu mediku batek azterketa medikua egingo dio lesio edo gaixotasunik ez duela egiaztatzeko eta lanpostua betetzeko gai dela ziurtatzeko.

**10. Contratación.**

El Órgano competente contratará el/la aspirante propuesto/a por el tribunal una vez éste haya presentado los documentos especificados en el apartado anterior. Previo a la firma del contrato se le realizará una revisión médica por parte del servicio médico señalado por la empresa, a fin de comprobar que no tiene lesión o enfermedad alguna y si es apto/a para cubrir el puesto.

Probaldiak bi hilabeteko iraupena izango du.

El período de prueba tendrá una duración de dos meses.

Epe hori bukatu aurretik, dagokion arduradunak probaldian dagoen langileari buruzko txosten bat egingo du. Txosten horretan, hurrengo gaitasunak hartuko dira kontuan: lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala, arduraren zentzua eta eraginkortasuna, lanerako gogoa eta lanarekiko interesa eta ekimena.

Antes de la finalización de ese periodo, el/la responsable correspondiente emitirá un informe sobre el/la trabajador/a que está en periodo de prueba y en el mismo tomará en cuenta las siguientes aptitudes que ha demostrado: Capacidad para trabajar y rendimiento profesional, sentido de la responsabilidad y efectividad, disposición para trabajar e iniciativa e interés hacia el trabajo.

Hautagaiak probaldia gainditzen ez badu, bere eskubide guztiak galduko ditu eskumena duen organoaren ebazpen baten bitartez.

Si el/la aspirante no supera el periodo de prueba, perderá todos los derechos, mediante una resolución del órgano competente.

**11. Intzidentziak.**
Oinarriotan adierazi gabeko gai guztietan, epaimahaiak izango du egon daitezkeen zalantzak argitzeko eta deialdia zuzen egiteko beharrezko erabakiak hartzeko ahalmena.

**11. Incidencias.**
El Tribunal queda autorizado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden de la convocatoria en todo lo no previsto en estas Bases.

**12. Aurka-egitea.**
Deialdiaren, honako oinarri hauen eta jatorria deialdian edo epaimahaiaren jardueran duten jarduera administratiboen aurka egin ahal izango dute interesatuek indarrean dagoen urriaren 1teko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.

**12. Impugnación.**
La convocatoria, las presentes bases y las acciones administrativas emanadas de la misma convocatoria o de la actuación del Tribunal podrán ser impugnadas por los interesados de la forma y plazos previstos en la vigente Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Tolosa, 2017ko ekainaren 22.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO LEHENDAKARIA